

DEIALDIA, IRUÑEKO UDALAREN HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOAREN ZERBITZURA ARITZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO ETA FINKATZEKO EZOHICO PROZESUARI DAGOKION GARBIKETA-, SUKALDARITZA- ETA MANTENTZE-LANETAKO LAGUNTZAILEAREN LANPOSTU HUTS BAT MEREZIMENDU-LEHIAKETAREN BIDEZ BETETZEKO, ENPLEGU PUBLIKOAN BEHIN-BEHINEKOTASUNA MURRIZTEKO NEURRIAK EZARTZEN DITUEN 20/2021 LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA.

**OPOSIZIO-LEHIAKETA
GARBIKETA-, SUKALDARITZA- ETA MANTENTZE-LANETAKO
LAGUNTZAILEA**

**OPOSIZIO FASEA – PROBA BAKARRA
BALORAZIOA: 60 PUNTU
DENBORA: 90 MINUTU**

2024/02/03

**EZ JO HURRENGO ORRIRA
HASTEN AHAL ZARELA ESAN ARTE**



- 1. 1978ko Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua babestean:**
 - a) Unibertsitateko irakaskuntza doakoa da.
 - b) Oinarritzko hezkuntza nahitaezkoa eta doakoa da.
 - c) Lehen Hezkuntza hautazkoa da.

- 2. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 47. artikulua arabera, irakaskuntzaren arloan, zein da Nafarroaren eskumena?**
 - a) Estatuko legeria betearazteko eskumena du.
 - b) Eskumen osoa du.
 - c) Eskumen eskusiboa du.

- 3. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 19. artikulua arabera, nork jo dezake arartekoarengana?**
 - a) Edozein pertsona, gaian interesik ez badu ere.
 - b) Interes legitimoa aipatzen duten berezko pertsonak nahiz pertsona juridikoak, inongo mugarik gabe.
 - c) Aurreko biak ez dira zuzenak.

- 4. Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 4. artikulua arabera:**
 - a) Nafarroako Gobernua lehendakariak eta ministroek osatzen dute.
 - b) Nafarroako Gobernua lehendakariak eta zinegotziek osatzen dute.
 - c) Nafarroako Gobernua lehendakariak eta kontseilariak osatzen dute.

- 5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 30. artikuluan ezarritakoaren arabera, Departamentuak honela egituratzen dira:**
 - a) Departamentu bakoitzean zuzendaritza nagusi bat edo gehiago izanen dira. Azken horiek departamentuko titularraren menpe daude zuzenean.
 - b) Departamentu bakoitzean zuzendaritza nagusi bat edo gehiago eta Idazkaritza Tekniko Nagusi bat izanen dira. Azken horiek departamentuko titularraren menpe daude zuzenean.
 - c) Departamentu bakoitzean zuzendaritza nagusi bat edo gehiago eta Idazkaritza Tekniko Nagusi bat izanen dira. Azken horiek Nafarroako Gobernuaren lehendakariaren menpe daude zuzenean.

- 6. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikulua arabera, honako hauek ez dira administrazioarekin harremana bitarteko elektronikoz izatera behartuta egon:**
 - a) Pertsona fisikoak.
 - b) Pertsona juridikoak.
 - c) Administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartua dagoen interesdun baten ordezkari direnak.



- 7. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 26. artikuluaekin bat, funtzionarioak eskatuta, borondatezko eszedentzia ematen ahalko da:**
- a) Gehienez ere, 18 hilabetez.
 - b) Gehienez ere, hiru urtez.
 - c) Epemugarik gabe.
- 8. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018ko Lege Organikoaren III. tituluko II. kapituluaren babespean, eskubide hauetako zein ez dagokio ukituari?**
- a) Datuetara irispidea izateko eskubidea.
 - b) Datuak zuzentzeko eskubidea.
 - c) Ikerketarako eskubidea.
- 9. Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 4. artikuluan ezarritakoarekin bat, emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna:**
- a) Zuzendaritzaren printzipio orokor bat da.
 - b) Antolamendu juridikoa eratzen duen printzipioa da.
 - c) Politika sozial eta ekonomikoaren gida-oinarri bat da.
- 10. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen 21. artikuluaekin bat, nolakoa izan behar du Administrazio Publikoek erabiltzen duten hizkera?**
- a) Administrazio publikoek erabiltzen duten hizkera inklusiboa eta ez-sexista izanen da.
 - b) Administrazio publikoek erabiltzen duten hizkera eskusiboa eta ez-sexista izanen da.
 - c) Administrazio publikoek erabiltzen duten hizkera ez-inklusiboa eta ez-sexista izanen da.
- 11. Zein ez da garbiketa-, sukaldeko eta mantentze-lanetako langileek bete beharreko eginkizuna?**
- a) Garbitu beharreko gelak garbitasun baldintza egokietan eta kaltetu gabe mantentzea.
 - b) Merkatuko edozein garbiketa-produktu mota erabiltzea.
 - c) Garbiketa-langile horiendako berariazko segurtasun- eta higiene-arauak errespetatzea.
- 12. Ikastetxe publikoetan hainbat eremu identifikatu daitezke erabileraren arabera, eta horrek garbiketaren plangintzan eragina izanen du. Zein dira eremu horiek?**
- a) Eremu nobleak, zerbitzu-eremuak eta eremu komunak.
 - b) Kanpoko eta barneko eremuak.
 - c) Zerbitzu-eremuak eta administrazio-langileen eremuak.



13. Nola kendu dezakegu koipezko zikinkeria –olioek, koipeek eta abarrek eragindakoa–?

- a) Mopaz eta detergente zertxobait alkalinoaz garbituta.
- b) Sustantzia kimikoak erabilia (detergente alkalinoak) edo mekanikoki, garbitzeko makinaz eta detergente disolbatzaileez.
- c) Mopaz eta detergente neutroaz garbituta.

14. Zer da dispartzioa garbiketari lotutako kontzeptu gisa?

- a) Zikinkeria trinkoa hausteko eta partikula finetan bihurtzeko gaitasuna da.
- b) Zikinkeria emulsionatzeko gaitasuna da, berriz ere ez sortzeko eta garbitu beharreko gainazalean berriz ez itsasteko.
- c) Teknikoki, uraren gainazaleko tentsioa hausteko gaitasuna da, kontaktu-tentsioa murriztu eta hobeto sar dadin.

15. Zein izan daiteke hautsaren jatorria?

- a) Jatorria begetala, minerala edo kimikoa izan daiteke.
- b) Hautsa animalia-jatorrikoa izan daiteke.
- c) Hautsa animalia-jatorrikoa edo jatorri fisikokoa izan daiteke.

16. Zein da hondakinen definizioa?

- a) Hasierako erabilera jada ez duten gauzak, sustantziak, hondarrak edo objektuak.
- b) Baldintza zehatzetan bakteriak deuseztatzeko ahalmena duten produktuak.
- c) Toxikoak diren gauzak, sustantziak, hondarrak edo objektuak.

17. Berriazko tratamendua egitea errazteko motaren edo izaeraren arabera hondakin-fluxu bat banatuta mantentzen duen bilketa honela definitzen da:

- a) Tratamendua.
- b) Gaikako bilketa.
- c) Berrerabilpena.

18. Zergatik dakartza onura ergonomikoak mikrozuuntzez garbitzeak?

- a) Garbiketako langileek egiten duten ahalegina murrizteko eta lesioak saihesteko diseinatutako materialak direlako, bai eta lanak egiteko denbora eta behar diren produktu kimiko eta ur kopurua murrizteko ere.
- b) Garbiketako langileek egiten duten ahalegina murrizteko eta lesioak saihesteko diseinatutako materialak direlako, bai eta lanak egiteko denbora handitzeko eta behar diren produktu kimiko eta ur kopurua murrizteko ere.
- c) Garbiketako langileek egiten duten ahalegina murrizteko eta lesioak saihesteko diseinatutako materialak direlako, bai eta behar diren produktu kimiko eta ur kopurua handitzeko eta lanak egiteko denbora murrizteko ere.



19. Garbiketa-materialen kontserbazioari dagokionez, zein da erantzun okerra?

- a) Batzuetan, material zikina erabiltzea komeni da garbiketa egiteko.
- b) Lanaldia amaitutakoan ateak eta leihoak itxiko dira.
- c) Egunero garbituko dira zaborrontziak eta horiek eramateko orgak.

20. Mopak hautsaren garbiketa higienikoa egiteko erabiltzen diren tresnak dira. Kotoizko mopez gain, hauek ere erabiltzen dira:

- a) Polietilenoazko mopak eta mopa sintetikoak.
- b) Kautxuzko mopak eta mopa estra xurgatzaileak.
- c) Mikrozuuntzeko mopak eta mopa inpregnatuak.

21. Garbiketa-lanak egiteko erabiltzen den makineria orok honako babes hauek izan behar ditu:

- a) Babes elektrikoa, hezetasunaren eta hautsaren aurkako babesa, gainberotzearen aurkako, soinu-babesa eta partikulen isurketa minimoa.
- b) Babes mekanikoa, hezetasunaren eta haizearen aurkako babesa, gainberotzearen aurkako, soinu-babesa eta partikulen isurketa minimoa.
- c) Babes elektrikoa, hezetasunaren eta hautsaren aurkako babesa, hozteko sistema, babes bisuala eta gehieneko partikula isurketa.

22. Zikina dagoen hormigoizko zoru bati egin beharreko oinarritzko tratamendua honako hau da:

- a) Lehorretan eskuilatzea eta xurgagailua pasatzea.
- b) Lehorretan ekortzea edo xurgatzea.
- c) Makinaz eta detergente alkalinoaz garbitzea.

23. Zein dira linoliozko zoruaren ezaugarriak?

- a) Isolatzaile termiko ona da eta propietate bakterizidak ditu.
- b) Estaldura gogor eta oso erresistentea da.
- c) Oso sentikorra da produktu azidoekiko.

24. Garbitu ezin diren paretetan (pintatuak eta papereztatuak), zerekin ezabatuko dira orbanak?

- a) Garbitu ezin diren paretetarako eskuila berezi batekin.
- b) Detergente basiko batekin eta eskuila berezi batekin.
- c) Trapu heze batekin eta detergente neutroarekin.

25. Sabaien eskuzko garbiketari dagokionez, zein da erantzun zuzena?

- a) Ur epelez eta detergente neutroz –ahal bada bakterizida eta fungizida– garbituko da,, edo produktu enzimatikoa, apar motakoak, lainoztatuta.
- b) Hautsa kentzea baino ez da komeni; zikinkeria gehiago badago, gainazala berriz margotu behar da.
- c) Ontzi batean ur epelez eta urratzailea ez den detergentez osatutako soluzio bat prestatu behar da.



26. Paretak garbitzeko produktu nagusia hau da:

- a) Lurruna.
- b) Detergente basikoa.
- c) Detergente neutroa.

27. Altzariak garbitzeko orduan, funtsean, bi altzari mota bereizi behar dira konposizioaren arabera:

- a) Altzari garbigarriak eta altzari ez garbigarriak.
- b) Altzari koipetsuak eta altzari zikinak.
- c) Altzari ez garbigarriak eta altzari porotsuak.

28. Nola ezabatuko zenituzke hatz-markak zur bernizatuzko edo lakatuzko altzari batean?

- a) Nahikoa izan ohi da zapi eze bat pasatzea hautsa kentzeko eta gero altzariak garbitzeko produktu espezifiko bat aplikatzea.
- b) Nahikoa izan ohi da alkoholarekin eta limoiarekin bustitako zapi bat pasatzea.
- c) Nahikoa izan ohi da lixibaz bustitako zapi bat pasatzea.

29. Zein orban motari aplikatu behar zaio alkohol, azido azetiko zuri, glizerina, azido oxaliko eta eterezko disoluzio bat?

- a) Koipe-orbanei.
- b) Tinta-orbanei.
- c) Uraren kareak eragindako orbanei.

30. Zein agente biologikok kaltetu dezakete zura?

- a) Eguzki-argiak eta gatzek.
- b) Hezetasunak eta elektrizitate estatikoak.
- c) Onddoek eta xilofagoek.

31. Zertarako erabiltzen da kristalak garbitzeko eskuarea?

- a) Garbitu aurretik kristalari oso itsatsita dagoen zikinkeria kentzeko balio du.
- b) Zikinkeria, ur eta detergente arrastoak kentzeko balio du, kristala erabat garbi gelditzeko.
- c) Kristala urez eta xaboiez bustitzeko balio du.

32. Leihoen markoak honela garbitzen dira:

- a) Modu batean edo bestean, fabrikatu diren materialaren arabera.
- b) Denak modu berean, amoniako eta ur nahasketa batekin.
- c) Denak modu berean, detergente pixka batekin eta urarekin.

33. Kristalak honela garbitu behar dira:

- a) Goitik behera.
- b) Behetik gora.
- c) Berdin du ordenak.



34. Eranskailuak edo beste itsasgarri batzuk aurkitzen badira:

- a) Komenigarria da gainetik amoniakoa botatzea eranskailua biguntzeko.
- b) Itsatsitako objektua asko bustitzea komeni da, eta kristalak harraskatzeko hortz batekin hondarrak guztiz kentzea.
- c) Zuzenean burdin harizko espartzu batekin harraskatzea komeni da, aurretik beste ezer egin gabe.

35. Zenbatean behin garbitu beharko dugu eskolako kanpoko jolastokia?

- a) Astean behin, gune hori egunean ordu gutxiz erabiltzen baita.
- b) Egunero, zaborra eta erori ahal izan diren hostoak kentzeko.
- c) Bi egunean behin, egunean ez baita zazpi orduz erabiltzen.

36. Eskolako jantokiko garbiketan:

- a) Zoruak ez dira inoiz lehorrean erraztatu behar, eta inolaz ere elikagaiak prestatzen ari diren bitartean.
- b) Zoruak lehorrean erraztatu behar dira jankideak irristatu ez daitezen.
- c) Berdin du nola erraztatu, garrantzitsuena egunero erraztatzea da.

37. Zein baldintza hartu behar dira kontuan garbiketa-produktu mota egokiena aukeratzeko?

- a) Zikinkeria izaera eta gainazal mota.
- b) Garbitzeko dugun denbora.
- c) Daukagun produktu kantitatea.

38. Non biltegitatu behar da lixiba?

- a) Aireztapenik gabeko lokal batean, lurrin toxikoak kanpora atera ez daitezen.
- b) Bero- eta argi-iturri orotatik urrun, eta ez du 2 hilabete baino gehiago igaro behar fabrikatzen denetik erabiltzen den arte.
- c) Langile guztien begi-bistan, behar izanez gero errazago erabili ahal izateko.

39. Lixibak, duten kloro aktibo edukiaren arabera, honela sailkatzen dira:

- a) Azidoak eta lixiba alkalinoak.
- b) Lixibak eta lixiba kontzentratuak.
- c) Karearen aurkakoak eta lixiba zuritzaileak.

40. Honako hondakin hauen artean, zein geratzen dira etxeko-hondakinen bilketatik kanpo?

- a) Herritarrek beren etxeetan sortutako etxeko hondakin arriskutsuak.
- b) Hondakin likidoak edo likidotu daitezkeenak.
- c) Hildako etxeko animaliak.

41. Hondakinen bilketari dagokionez, arau-hauste larria da:

- a) Hondakinak estolderia sarera botatzea, arrisku larrian jarri gabe pertsonen osasuna edo kalte larria eragin gabe ingurumenerako.
- b) Hondakinak hartzea, behin dagokien eran utzi eta gero.
- c) Edukiontzia eta/edo haietako zeinahi elementu hondatzea.



42. Iruñerriko Mankomunitateko Hondakinen Kudeaketa arautzen duen Ordenantzan, nola definitzen da hondakinen bilketa?

- a) Edozein lan, haren bidez produktuak edo produktuen osagaiak, hondakin ez direnak, berriz ere erabiltzen badira, zertarako asmatu ziren eta horrexetarako.
- b) Balorizazio lana, haren bidez hondakinen materialak berriz ere produktu, material edo gai bilakatzen badira.
- c) Hondakinak jasotzea, barne dela hasierako sailkapena eta biltegitratzea, horiek tratamendurako instalazio batera garraiatzeko.

43. Hondakinak biltzerakoan, erabiltzaileak, besteak beste, honako betebeharrak izan behar du:

- a) Hondakinak tolestea edo zatikatzea, hala behar denean (kartoizko kaxak, zur gaiak, plastikoa eta abar).
- b) Hondakinak edukiontzietatik gertu uztea, erabili eta gero estalkiak itxita.
- c) Kalterik sor dezaketen hondakinak (beira, latorria...) ikusteko moduan dagokien edukiontzian botatzea.

44. Noiz zurratzen da arropa?

- a) Garbitu, urberritu eta zentrifugatu aurretik.
- b) Garbitu eta urberritu ondoren eta zentrifugatu aurretik.
- c) Garbitu ondoren eta urberritu eta zentrifugatu aurretik.

45. Emaizta optimoa lortzeko, zein tenperaturatan garbitu behar da kotoizko arropa zuria?

- a) Gehienez ere 90 graduko tenperaturan.
- b) Ur hotzetan.
- c) Gehienez ere 30 graduko tenperaturan.

46. Garbitegi bateko lehenengo hiru faseak honako hauek dira:

- a) Arropa garbitu eta lehortzea eta ehunak tindatzea.
- b) Arropa zikina jaso eta garbitzea eta arropa lehortzea.
- c) Arropa jasotzea, zurratzea eta estanpatzea.

47. Langileek norberaren babeserako ekipamenduak erabiltzeko segurtasun eta osasuneko gutxienezko xedapenei buruzko maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuaren 10. artikuluaekin bat, prebentzioari dagokionez langilearen betebeharra da:

- a) Bere babeserako beharreko ekipamenduak erostea.
- b) Norbera babesteko ekipamenduak modu egokian erabiltzea eta zaintzea.
- c) Norberaren babesa zein lanpostutan erabili behar den erabakitzea.



48. Langileek norberaren babeserako ekipamenduak erabiltzeko segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenei buruzko maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuaren 5. artikuluekin bat, ekipamendu horiek babes eraginkorra eman beharko dute erabilera eragiten duten arriskuen aurrean, beren kabuz beste arrisku gehigarriarik eta alferrikako eragozpenik eragin gabe. Horretarako:

- a) Lantokiko baldintzei erantzun beharko diete.
- b) Langilearen baldintza anatomikoak eta fisiologikoak eta osasun egoera kontuan hartu beharko dituzte.
- c) Biak dira zuzenak.

49. Langileek norberaren babeserako ekipamenduak erabiltzeko segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenei buruzko maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretuaren 7. artikuluekin bat, babeserako ekipamendu bat zer baldintzatan erabili behar den eta, bereziki, zenbat denboraz eraman behar den, honako hauen arabera zehaztuko da:

- a) Arriskuaren larritasuna.
- b) Arriskuarekiko esposizioaren iraupena edo maiztasuna.
- c) Biak dira zuzenak.

50. Iruñeko Udaleko Haur Eskoletako garbiketa-, sukaldaritza- eta mantentze-lanetako laguntzaileen funtzioen artean, hauetako zein dago?

- a) Eskolan erabiltzen den arropa garbitu eta jasotzea.
- b) Arropa garbitegi espezializatu batera eramatea.
- c) Arropa poltsatan jartzea familiek etxera garbitzera eraman dezaten.

51. Honako funtzio hauetatik zein ez dagokie garbiketa-lanetako laguntzaileei?

- a) Material pedagogikoa garbitzea.
- b) Landareak zaintzea.
- c) Telefono-arreta.

52. Zeini dagokio eskolako kanpoko patioa garbitzea?

- a) Mantentze-lanetako enpresari.
- b) Garbiketa-lanetako laguntzaileei.
- c) Udaleko lorezainei.

53. Zein da aireztapen egokia ikastetxeetan COVID epidemia baten aurrean?

- a) Lehentasunezko aukera aireztapen naturala da.
- b) Lehentasunezko aukera aireztapen behartua da.
- c) Lehentasunezko aukera noizbehinkako aireztapen gurutzatua da.

54. Ikastetxe batean COVID epidemiaren hondakinak kudeatzeari dagokionez. Zein da erantzun zuzena higie pertsonaleko materialari (maskarak, eskularruak...) dagokionez?

- a) Pertsona bakoitzak bere etxera eraman behar du.
- b) Gainerakoen frakzioan bota behar da.
- c) Edozein zakarrontzitan bota daiteke.



55. Higieneko jardunbide egokiek eskuak garbitzea barne hartzen dute. Eskuak maiz garbituko dira, eta kasu hauetan guztietan:

- a) Langilea lanpostura sartzen den bakoitzean, baita atsedenaldien ondoren ere, eta jan, erre eta zaborrak kentzen dituen bakoitzean.
- b) Langileak sukaldeko tresna eta ekipamendu garbiak ukitu eta maneiatzen dituen bakoitzean, eskularruak erabiltzen direnean salbu.
- c) Bi erantzunak zuzenak dira.

56. Hondakin organikoak erretiratzeari dagokionez, zein da erantzun zuzena?

- a) Ahal bezain pronto erretiratu behar dira, gutxienez ontziak betetzen diren bakoitzean eta/edo egunean behin, lanaldia amaitzerakoan.
- b) Orduro erretiratu behar dira.
- c) Nahikoa da egunean behin, lanaldia amaitzerakoan, erretiratzearekin.

57. Sukaldeko instalazioetan erabiltzen diren desinfektatzaileei dagokienez, zein da erantzun zuzena?

- a) Ez dute berariazko baimenik izan behar; izan ere, erabili ondoren, behar bezala uretan eragin behar dira.
- b) DA (Elikadura Desinfektatzailea-Desinfectante Alimentario) letrekin berariaz baimenduta egon behar dute.
- c) Berariaz baimenduta egon behar dute bederatzi digituko kode baten bidez, ondoren HA (Elikagaien Higiena-Higiene Alimentaria) letrak dituztela, edo elikagaien industriarako "erabilera baimendua" dutela adierazita.

58. Zein funtzio du elikagaien zuntzak?

- a) Heste-igarotzea bizkortu, gluzemia kontrolatu eta gose sentsazioa ematen du.
- b) Heste-igarotzea bizkortu, argaltzen lagundu eta asetasun sentsazioa ematen du.
- c) Heste-igarotzea bizkortu, gluzemia kontrolatu eta asetasun sentsazioa ematen du.

59. Nafarroako elikagaien sasoiak kontuan hartuta, honako barazki hauetatik, zein eskainiko da azarotik urtarrilera bitarteko menu batean?

- a) Kardua.
- b) Tomatea.
- c) Lekak.

60. Zein da plater osasungarria edo Harvarden platera deitutakoaren osaera?

- a) Erdia, elikagai proteikoak; laurden bat, frutak eta barazkiak, eta laurden bat, osoko zerealak.
- b) Erdia, frutak eta barazkiak; laurden bat, elikagai proteikoak, eta laurden bat, osoko zerealak.
- c) Erdia, osoko zerealak; laurden bat, frutak eta barazkiak, eta laurden bat, elikagai proteikoak.



ERRESERBAKO GALDERAK

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearekin bat, honako errekurtso mota hauek daude:

- a) Aukerako gora jotzeko errekurtsoa, berraztertze-errekurtsoa eta berrikuspen-errekurtsoa.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, berraztertze-errekurtsoa eta kasazio-errekurtso berezia.
- c) Gora jotzeko errekurtsoa, aukerako berraztertze-errekurtsoa eta berrikuspen-errekurtso berezia.

2. Zein da erantzun zuzena? Mantentze-garbiketa honela definitzen da:

- a) Eraikuntza-obra bat edo edozein motatako zaharberritze-obra bat amaitzean egiten den garbiketa.
- b) Gelako edozein txokotan egon daitezkeen zikinkeria guztiak kentzeko egiten den garbiketa sakona gainazal, parametro eta altzari guztietan.
- c) Gainazal guztietako higiene-maila, maila estetikoa eta segurtasun-maila mantentzeko egiten diren lanen multzoa.

3. Garbiketa-lanak egiteko erabiltzen den makineria orok Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 41. artikuluko preskripzioak zehazki jarraitu beharko ditu. Artikuluan honako hauei egiten zaie erreferentzia:

- a) Fabrikatzaileen, erabiltzaileen eta mantentze-lanetako teknikarien betebeharrak.
- b) Fabrikatzaileen, inportatzaileen eta hornitzaileen betebeharrak.
- c) Mantentze- eta zainketa-betebeharrak.

4. Kristalezko zein gainazal mota aurki ditzakegu?

- a) Trinkotuak, beirazkoak, portzelanazkoak eta klinker motakoak.
- b) Barnekoak, kanpokoak, eremuak banatzekoak eta finkoak.
- c) Gardenak, opakuak, tindatuak, beira-pabesa eta beirateak.

5. COVID epidemian garbiketa eta desinfekzioa egiteko zein desinfektatzaile erabiliko da?

- a) Xaboi neutroa.
- b) Lixiba diluitua (1:50).
- c) Edozein detergente.